

“BERTSOLARI ONA DENAK, BADAHI SEGIDA EMATEN GUTXIAGO DENAREKIN”

Migel Arrieta, bertsoa berarekin daraman gizona

Bertsotarako sena eduki du betidanik Migel Arrieta Bideburuk (Urnieta, 1931). Bi biziari egin ditu bertsogintzari dagokionez: plazako bertsolari gisa aritu zen soldaduskara joan aurretik; jendaurreko

lanak denak albora utzi zituen ondoren. Kinto bazkaritan nahiz familiako ekitaldietan asetu izan du azken urtetan, jendaurrekiko bertsolaritza.

Bertsolari polita zeto-rrren Migel, “baina jendaurrean bertso-tan hasteak, hasie-rako une horrek alegia, buruhaustea eragiten zizkidan eta kitto egitea eraba-ki nuen oso gaztetan, plaza mordoa egin eta gero”.

Berak ez du uste maila one-ko bertsolari izatera iritsiko zenik segi izan balu, eta lotsa ematen dio prentsan ikustea bere burua. “Urte horiekin eta orain hasi al da hemen, gauzak arrotzen!” horixe esango duten errezeloa du.

Oindi mendiko hegalean da- goen **Legaralde** baserrian jaio zen Migel. Familiako kide de- nek omen zuten bertsotarako joera. **Maria Etxeberria** Migelen emazteak baieztatzen digu ezaugarri hori: “Ni Migelen etxera joan andregaitan, eta non sartu ote nintzen harrituta galdetzen nion nire buruari; hau bertsotan, hura bertsotan... denak hantxe bertsotan!”.

AITAREN ESKUTIK

“Zuzenak edo okerrak, zaha-rrak edo berriak, etxean ber- toak ziren nagusi borda zahar hartan” gehitzen dio Migelek. Aitarengandik jaso omen zen grina hori. “Idazten edo ira- kurtzen ez zekien, baina Her- naniko meza nagusira joateko ohitura zuen; meza ondoren



Migel Arrieta, Andoaingo bere etxean.

izaten ziren bertso saio guztiak jan, eta etxera bertsoak ikasita itzultzen zen”.

Aita ez ezik, Migel ere espe- ziala da entzundako bertsoak buruan gordetzeko lanetan. Bi- txia bada ere, urtetan bertso mordoa bota duen gizona izan arren, apenas dituen horiek gogoan; “aisago besteenak ja- sota edukitzea”, dio. Umiltasu- naren seinale, akaso.

Bi txapelketetan eta makina bat plazetan jardun zuen sol-

daduskara joan aurretik, 19 urterekin. “Donostian eta Iru- nen bertsolari gazteentzako antolatu ziren txapelketa bana- tan parte hartu nuen. Hernani aldeko antolatzaileek haizea eman zidaten eta ni ere ausarta izan orduan! Aurreneko aldia zen jendaurrean, urduri antze- an baina nahiko poliki aritu nintzela iruditzen zait”.

XOXOKAKO JAIETAN ANTOLATZAILE

Plazak berriz, konta ezin ahala ditu. Lehenbizikoak, bere au- zoan: “Xoxokako jaien antola- ketan ibili nintzen zenbait ur- tetan. Festa giroa guk geuk ja- rri izan genuen hasieran: **Jo- akin Iraola** eta biok **Garro** sona- tuaren kontra korrika apus- tuan aritzen ginen, edo **Juan Bautista Urretabizkaia** eta biok bertsotan”.

Gerora **Uztapide**, **Lasarte**, **Le- xoti** eta antzeko bertsolari fa- matuak ekartzen hasi ziren. “Orain bost minutu lehenago azaldu, bertsoak kantatu eta etxera joaten dira. Orduan bi egun egiten zituzten festetan isildu gabe; goizean hasita

Bi txapelketetan eta maki- na bat plazetan jardun zuen soldaduskara joan aurretik, 19 urterekin

gaueko ordubata arte bai, ekin eta ekin! Orain **Adarra jatetxea** den baserri horretan edo **Main- guenean**, plazan edo zeuden to- kian, haiek beti bertsotan. Ber- tsolarien atzetik segika, berriz, izugarritzko jende pila”.

Haiekin jarduten ote zen gal- detuta, baietz erantzuten du Migelek. “Haien mailan ez, baina sartzen nintzen, bai. La- gundu egiten ziguten, zapaldu ez. Izan ere, bertsolari ona de- nak, badahi segida ematen gu- txiago denarekin”.

Bere bertsokera definitzeko- tan, klasiko hitza aipatzen du. “Barrea eragitekoa, umore an- txekoa zen nire estiloa. Gure garaian ia dena horrela bai- tzen. Gaztetan burua arinxea- goa izaten da, eta ondokoari ziria sartzeko beti prest egoten da, nahiz eta norbera ziriare- kin gelditu azkenean, bestea bizkorragoa izan delako”.

UZTEKO ERABAKIA

Urnietan ez ezik Andoaín, Hernani, Amezketan, Donostia, Martutene, Albistur... makina bat jai txiki eta handitan kan- tatu zuen. Soldaduskatik itzul-

tzean baina, kitto esan zuen. “Eta ez gogo faltagatik! Nik beti beldurra sentitzen bai- nuen hasteko unean. Barruko korapiloa ezin libratu!! Pre- sioa zen, -hara Legaralde, jo- an dek pikutara! poto baten- gatik komentario hori entzun nahi eza, alegia. -Nik hau pasa beharrik etzakat-, halaxe esan nion nere buruari, eta fuera!”.

Bertsotarako arrak, ordea, ez dio bakean utzi sekula Mi- geli. “Nire gisa aritzen naiz maiz. Non zaudela ere, edo- zein gauzaren gainean bertso- ak osatu litezkeela pentsatzen duzu, eta hor hasten zara bu- ruari jiraka”. Adinak ez omen du barkatzen, hala ere, eta kostatzen zaio lau puntuak osatzea.

Kinto bazkaritan nahiz fami- liako ekitaldietan asetu izan du azken urtetan, jendaurrekiko bertsolaritza. Ingurukoek esti- matzen dute bertsotarako inoiz galdu ez duen abilezia, eta hargatik eskatzen diote kantatzen hasteko, nahiz bera- ri kosta baiezkoka esatea.

Oraingo bertsolaritza jarrai- tzen du eta aitortzen du Ega- ña, Peñagarikano, Mendiluze. Lujanbio, Lizaso... oso onak direla. Gazteekin, hala ere, ba- du erreparorik: “gazte asko ikusten ditut eskoletan fabri- katuak bezala, berezkoa ez da- kartela”.

XOXOKAN BERTSOTAN



Jose Luis Lekuona Lexoti (ezkerrean) eta Migel (eskuinean), 1949an.

Eskualdeko garraio zerbitzuen gida zehatza

Eskualdeko tren eta autobusen ordutegia

2008-2009

Urnietan